


Basahatea, hezegunetako biztanle ezagunena

Migel Mari Elosegi*



FITXA TEKNIKO

Basahatea

Espezia: *Anas platyrhynchos*
Familia: anatidoak
Ordna: anseriformeak
Klasea: hegaztiak

Bi dira gaur egun Oria ibaia-
 ren ibilbideko herrietan bizi
 diren adinduen eguneroko
 ekintza nagusiak: eraikuntza
 publikoei kontu hartzea, eta ibaian
 dauden ahateei begiratzea eta horie-
 taz arduratzea. Ibai ezagun honen
 azken urteotako bilakaera pozgarria
 izan da. Duela gutxi arte, inguru
 guztian zegoen poluituenaren tama-
 lezko ospea zuen Oriak, baina, gaur

egun, ur gardenik ez duen arren, ani-
 malia ugari ikus daiteke bertan, bere
 hobekuntza nabarmenaren lekuko.
 Azken lau urteotako da, adibidez,
 hemen sortu den basahate-populazio
 ederra, eta garai bateko etxeko aha-
 teak basatietatik eratorri ziren beza-
 la, historiari bira osoa emanez,
 Oriako ahate gehienak etxekoetatik
 eratorri dira, eta kolonia erdi-basati
 eta basatiak eratu dituzte. Inguruko
 herrietako zenbait pertsonaren la-
 guntzarekin, etxean txitatutako aleak
 ibaira askatu ziren, hauek gaur egun
 ikaragarri ugaritu direlarik.

Gipuzkoako eskualde honetan basaha-
 teen gora-beherak orain pil-pilean
 dauden arren, Euskal Herri osoan eza-
 gunak izan dira betidanik. Ahate mar-
 dul hauek inguruotako handienak dira
 eta 58 cm-ko luzera dute. 850 eta
 1.500 gramo bitarteko pisua ere bai.

Aipatzekoa da basahateek, beste
 ahate-espezie gehienetan bezala,
 duten dimorfismo sexual nabaria.
 Arrak, lumaje ikusgarria izan ohi du,
 ugal-sasoian emea erakarri ahal iza-
 teko. Emearena, ordea, kumeak zain-
 tzeaz arduratzen denez eta harrapa-
 karirik ez erakartzearen, askoz ere
 apalagoa da.


Esan bezala, arrak janzkera ederra
 du oso. Nabarmena da buruko eta
 lepoko kolore berde bizia. Lepoan,
 eraztun zuri estua du eta honen
 azpialdea gaztain-kolorea edo arre
 gorrixka izan daiteke. Bizkarra, hegal
 gainak eta sabelaldea gris hauskarak
 dira. Atzealdea, berriz, beltz-beltza
 da eta buztana zuriska. Azken hone-
 tan gorantz kiribilduriko bi luma
 beltz xelegre ageri ditu apaingarri
 gisa. Mokoa horixka edota berdeska
 eta hanka laranja izan ohi ditu.


Emearen kasuan tonu arreak dira
 nagusi eta orban eta arrasto ilunez
 dago pintarratua. Arrak bezalaxe,
 buztana zuriska eta laranja-koloreko
 hankak ditu.

Espezie honen bereizgarri da bi
 sexuen hegaletan ageri den tonalitate
 urdin berdeskaz apaindutako luma
 more distiratsuen lerroa. Hegan doa-
 zelarik biziki ikusgarriak dira banda
 koloretsu hauek, eta erraz nahas izan
 daitezkeen espezie ezberdinetako
 emeak bereizteko egokiak dira.

Anatido eder hauek ingurune hezeei
 estu-estu loturik agertzen dira. Herri

**Uretan ibiltzeko, lumak ederki garbitu
 eta guruin batek ekoiztutako olio z igur-
 tzi behar izaten ditu.**





Basahateak, eta batez ere neguan, ugari dira Euskal Herriko hezeguneetan.

kozkor eta hiriburuetakoko parkeetako urmahelez gain, aintzira, urtegi, gordelekutan aberats diren ibai, eta oro har, ura duen tamaina dezentekeo edozein lekutan ikus ditzakegu. Leku hauetan, bikoteka edo taldeka ibiltzen dira.

Elikadurari dagokionez, basahatea batez ere belarjalea dugu. Belarra, haziak, laboreak, zurtoinak, eta fruituak jan ohi ditu, topa ditzakeen ornogabe ugarietara muzin egin gabe. Xelebrea da animalia honek uretan elikatzen denean duen jarrera. Gorputza aurreraka biratzen du bertikalki jarriz, eta begi-bistan atzealde bakarrak gelditzen delarik, burua eta lepoa murgiltzen ditu urpeko janaria ahartzeko. Eguna uretan edo inguruan pasatu ondoren, iluntzean hezegunetik belardi eta soroe-tara jotzen du bazka bila.

Habia gehienetan uretatik gertu egoten da, ibai- edo urtegi-bazterreko sasitarrean, eta noizean behin zuhaitz edo zuloren batean. Habia eraikitzeko, lumak, belarrak, adartxoak, eta papera, plastikoa eta antzeko material ezberdinak erabiltzen dituzte.

Uretan bertan kopulatu ondoren, errunaldia martxo eta uztaila bitartean izaten da. Ugaltzaile bikain honek 57 mm-ko eta krema- edo berdeska-kolorea duten 6-13 arrautza jar ditzake. 26-29 egunen buruan txitoak atera eta hauek nidifugoak izaki, jaio eta ordu batzuetara inoren laguntzarik gabe elikatzeko eta amari uretan segitzeko prest egongo dira, hegana ez badakite ere. 50-60 egun geroago eta ariketa askoren ondoren, hegaz egiteko gai izango dira.

Basahatearen hegakera, gainera ahateen modura bizkorra eta indartsua da. Zilueta berezia erakusten du, lepoa guztiz luzatuz eta hegalei azkar-azkar eraginez, eta normalean, uretan gelditzen da, bere hanka zapalekin galgatzean arrasto luze bat utziz.

Urtea bete dutelarik, kumatzen hasiko dira. Zenbait ale urte-mordoska batez bizi daitezkeela egiaztatu bada ere, batezbeste, 2 urte bizi dira eta Iberiar penintsulako populazioaren % 87a 3 urtetik beherako ahatez dago osatuta. Jaiotako ahateen erdiak neguan hil egiten direla kalkulatu da.



Basahatea Europako ahate ugariena dugu. Kontinente guztian umatu ondoren, migratzaile partzial hau, iparraldetik behera etorri eta Europako erdi eta hegoaldean izango dugu negu aldean. Eguraldiak txarrena jo eta elur-ekaitzekin batera makina bat basahate agertuko da eskualde epelago hauetan.

Euskal Herrian beraz, oso ugaria da udazken eta negu aldean, bertan umatzen direnak hainbeste ez izan arren. Herrialde guztietan ager daitezke bikoteren bat, eta Gasteizko urtegiak, Nafarroako aintzirak eta Ebro, Zadorra, Ega, Arga, edo Aragon ibaietan, adibidez, habiagile arrunta da.

Artikuluaren hasieran adinduei buruz esandakoari lotuta, bada zer edo zer aipatu nahi nukeena. Herrian bertan basahateak edukitzeko zortea duten lekuetan eta animalia hauen inguruan, jadanik aipatutako adinduak, ama eta umetxoak eta mota guztietako pertsonak biltzen dira egunero. Ahateak ogia eta barazkiekin bazkatu, zenbatu, eta besterik gabe ikustera hurbiltzen dira herritar hauek. Nolanahi ere, jende hau harro dago beren herrian hegazti eder hauek edukitzeaz, eta bihotzez estimatzen dituzte. Hau dela eta, espeziea kontserbatzea ez da zaila izango, eta okerren batek anima-

Ahatekumeek lumajea guztiz garatu baino lehen eta, hegaz ez dakitelarik, laguntzarik gabe elikatu eta igeri ederki egiten dute.

lia hauentzat kalterik ekartzen badu, jendea berehala haserretu egingo da eta errudunari ordaina eskatuko dio. Garrantzitsua da hau; edozein espezie kontserbatzeko bertakoen babesa beti aurrerapausorik handienetakoa izaten baita.

* Biologoa

